

# Hegazti-gripea kutsatzeko arriskua prebenitzea



# Hegazti-gripea kutsatzeko arriskua prebenitzea



Barakaldo, 2024

Lan honen bibliografia-erregistroa OSALANeko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:  
[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024)

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de OSALAN:  
[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024)

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of OSALAN:  
[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024)

<b>Izenburua:</b>	Hegazti-gripea kutsatzeko arriskua prebenitzea
<b>Argitaraldia:</b>	1.a. 2024ko ekaina
<b>Ale-kopurua:</b>	20 ale
<b>©</b>	Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa. OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
<b>Argitaratzailea:</b>	OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea. Dinamita Bidea z.g. - 48903 Barakaldo (Bizkaia).
<b>Internet:</b>	<a href="http://www.osalan.euskadi.eus">www.osalan.euskadi.eus</a>
<b>Egileak:</b>	OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
<b>Azalaren irudia:</b>	Wolfgang Mennel Unsplash-en.
<b>Fotokonposizioa eta inprimaketa:</b>	Fotocomposición IPAR, S. Coop. Zurbaran kalea 2-4 - behe. 48007 Bilbao (Bizkaia).
<b>Lege-gordailua:</b>	LG BI 00888-2024

## Aurkezpena

Espanian, hegazti-gripearen birusak eragindako infekzioak nahitaez aitortu beharreko gaixotasuntzat (NABG) hartzen dira, bai animalien osasunaren esparruan (ekainaren 20ko 526/2014 Errege Dekretua), bai giza osasunaren arloan (martxoaren 9ko SSI/445/2015 Agindua). Gaixotasun profesionaltzat hartzen da, langilea haren eraginpean egon bada (1299/2006 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, 3B01 kodea: Animaliek edo haien produktu eta gorpuek gizakiari transmititzen dizkioten gaixotasun infekziosoak).

Gidaliburu honen bidez, Osalanek modu erraz batean helarazi nahi die hegazti-gripea prebenitzeko informazioa hegazti-haztegi-tako enpresariei, langileei, bertan lan egiten duten lan-arriskuen prebentzioko teknikariei, eta haztegi horietan beren lanaren parte bat egiten duten enpresetako langileei (laborategiak, albaitaritza-zentroak eta abar).

Helburua gaixotasunaren ezaugarriei, langileek pairatzen dituzten arriskuei, eta aplikatu behar diren prebentzio-neurriei buruzko informazioa ematea da, langileen eta, oro har, gizartearen artean gaixotasuna kutsatzea saihesteko.



# Aurkibidea

<b>1. Zer da hegazti-gripea? Definizioa eta ezaugarriak</b>	9
<b>2. Nola kutsatzen da hegazti-gripea?</b>	10
<b>3. Nola eragiten du hegazti-gripeak?</b>	11
3.1. Sektore/jarduera/talde/zeregin arriskutsuak	11
3.1.1. <i>Zuzenean</i> eraginpean dauden profesionalak	11
3.1.2. <i>Zeharka</i> eraginpean dauden profesionalak	13
<b>4. Enpresariaren betebeharrak laneko arriskuen prebentzioan (LAP)</b>	14
4.1. Betebehar orokorrak	14
4.2. Arrisku biologikoen eraginaren gaineko betebehar espezifikoak	15
<b>5. Prebentzio-neurriak</b>	16
5.1. Kutsadura saihesteko prebentzio-neurri orokorrak	16
5.1.1. Hegaztien artean kutsadura saihesteko prebentzio-neurriak	16
5.1.2. Pertsonen artean kutsadura saihesteko prebentzio-neurriak	17
5.1.3. Urtaroko gripearen urteko txertaketa	18
5.1.4. Kalteberatasun handieneko pertsonak babestea	19
5.2. Prebentzio-neurriak kutsadura-susmoa dagoenerako	19
5.2.1. Kutsadura-susmoa hegaztien artean	19
5.2.2. Hegazti basati gaixo edo hil bat aurkituz gero	20
5.3. Nola jokatu hegazti-gripearen foku bat antzemanaz gero	20
<b>Bibliografia</b>	22





# 1. Zer da hegazti-gripea?

## Definizioa eta ezaugarriak

Hegazti-gripea munduan oso zabalduta dagoen gaixotasun biriko bat da, batez ere uretako hegazti basatietan ageri ohi dena, eta ezabatzeke ezinezkoa den multzo zabal eta isil bat osatzen du.

Hegazti-gripea eragiten duten A gripeareen birusaren azpimota gehienak ez dira kaltegarriak beren hegazti ostalari naturalentzat, eta ez dituzte gizakiak infektatzen. Patogenotasun txikiko hegazti-influentzaren birusa izenekoak dira (PTHI). Hala ere, hainbat mekanismoren bidez, PTHIa patogenotasun handiko hegazti-influentzako birus (PHHI) bihur daiteke, eta gaixotasun sistemiko oso infekzioso bat eragin dezake, hegazti-hilkortasun handikoa. Kasu honetan «oso patogeno» terminoa erabiltzen denean, ez gara ari gaixotasunak gizakien artean duen eraginari buruz, baizik eta hegaztien gaineko eraginari buruz.

Hainbat bide baliatuta, hegazti-gripeareen birusak zuzenean pasa daitezke hegaztietatik pertsonengana, baina ez da oso maiz gertatzen. Pertsonatik pertsonara kutsatzeko probabilitatea are txikiagoa da, gaur egun. Horren adibide, azken hamarkadetan hainbat foku antzeman diren arren, oso kasu gutxi identifikatu dira gizakien artean. Hala ere, oso garrantzitsua da giza kasuen agerpena prebenitzea, hegazti-gripea beste birus batzuekin konbinatu daitekeelako, esaterako urtaroko gripearekin, edo gizakiaren ezaugarrietara egokitu, eta, beraz, pertsonen artean transmititzeko gaitasuna hobetu, eta birus berriak sortu, gizakientzat pandemia bihurtzeraino.

Espanian, 2021-2022 denboraldian, AH5N1 azpimotako PHHI birusa antzeman zen eta, harrezkero, fokuak sortzen ari dira hegazti basatien artean eta hegaztien ustiategietan, European eta Ipar Amerikan bezala (horietan presentzia areagotzen ari da).



## 2. Nola kutsatzen da hegazti-gripea?

Hegazti-espezie guztiek, bai etxe-abereek bai basatiek, gaixotasuna garatu dezakete. Ugaztun batzuei ere eragin diezaike; esate baterako, bisoiei.

2021-2022 denboraldia Espainiako bisoi-haztegi batean hegazti-gripearen agerraldi bat antzeman zen lehena izan zen. Bisoiak hegazti-gripea eta normalean gizakiei eragiten dieten urtaroko birusak hartu ditzakete. Ondorioz, espezie honetan agerraldi bat egonez gero, errazagoa izan daiteke hegaztien birusak ugaztunen edo gizakiaren gorputzera egokitzea eta, zuzenean, hegaztien birusak eta gizakien birusak konbinatzea, egoera horrek eragin lezakeen arriskuarekin.

Hegazti-gripearen birusa infektatutako hegaztien sudur-zulo, moko eta begietako jariakinetan dago, bai eta gorotzetan ere. Kutsatutako gorotzekin kontaktua izatea da hegaztien artean transmisio-modu ohikoena, baina ohikoa da, halaber, arnas-jariakinen bidez transmititzea, batez ere hegazti-kontzentrazio gehien dauden egoeretan, esate baterako hegaztien haztegietan.

Hegaztitik gizakira transmititzeko, kutsatutako hegaztiekin, haien gorotzekin, gorputz-jariakinekin edo jariatzeekin zuzeneko kontaktua izan behar da. Gizakien infekzioa gerta daiteke, halaber, hegaztien hondar-produktuekin kutsatutako gainazalekin kontaktuan egoteagatik edo kutsatutako hegazti hilak ukitzeagatik.

Ez dago daturik adierazten duenik hegazti-gripearen birusak eta jatorri zootikoko gripearen beste birus batzuek pertsonak kutsatu ditzaketarik, baldin eta kontsumitzen dituzten elikagaiak ondo kozinatu badira.

## 3. Nola eragiten du hegazti-gripeak?

PHHIk hegazti guztien artean (ahateen eta antzaren kasuan salbu) duen ezaugarri komuna da gaixotasuna bat-batean hasten dela eta hilkortasun altua duela.

Txiten artean, patogenotasun handiaren zeinu klinikoak arnasketa-sintomen (arnasestua, eztula) eta digestio-sintomen (muturreko beherakoa) arteko konbinazio bat dira, eta ondoren heriotza azkarra dator.



Halaber, beste batzuk ere antzeman daitezke: energia, apetitu edo koordinazio falta; kolore morea edo hantura gorputzeko hainbat ataletan; eta arrautzen ekoizpen murrizta edo arrautzen azal bigun edo deformatuak.

Eskortako beste hegazti-espezie batzuek, indioilarrek adibidez, nerbio-sintomak izaten dituzte, hala nola dardarak, lepo bihurritua, hegalen paralisia eta ostiko-jotzea (etzanda).



Hegazti-gripearen birusek gizakiei eragin diezaiekete. Kasu gehienetan, urtaroko gripearen sintomen antzekoak izaten dituzte: eztula, sukarra, eztarriko mina, giharretako mina, zefalea, disnea, beherakoa, konjuntibitisa, astenia... Sintoma horiek infekzio arin bati lotuta egon daitezke, baina pneumonia larria, arnasketa-zailtasun akutua, shocka eta heriotza ere eragin ditzakete.

Orokorrean, hegazti-gripearen sintomak infektatutako hegaztiaren edo materialaren eraginpean egondako unetik 2 eta 10 egun arteko epean has daitezke.

### 3.1. Sektore/jarduera/talde/zeregin arriskutsuak

Arriskua zelan jasan den, honako sailkapen hau egin daiteke:

#### 3.1.1. Zuzenean eraginpean dauden profesionalak

Beren jarduera profesionalaren ondorioz (hegaztien ustiategiak, hegaztiak itxian edo erdi-aske dituzten gune zoologikoak, bisoiak haztegiak...) animaliekin, horien barrukiekin, gorotzekin edo azpiproduktu kutsatuekin kontaktu estuan egon behar dutenak, edo hala egon ahal izan direnak EAE inguruko foku aktibo izendatuak izateagatik.



*Hegaztien haztegi*etako langileak fase eta jarduera posible guztietan egon daitezke arriskupean: inkubatzean, galkatzean, errutean, animaliak sakrifikatzean, barrukiak ateratzean, instalazioak garbitzean, animaliak sakrifikatzean... Jarduera horietako bakoitzaren barruan, arriskua eragiten duten hainbat zeregin egon daitezke. Honako hauek:

– Errutea:

- Hazkuntzan lan egiten duten pertsonak.
- Giza kontsumorako produktuak saltzen dituzten pertsonak.



– Sakrifizio-guneak:

- Hegaztiak lekualdatzen dituzten edo konfinamendu-lekutik lekualdatzera behartzen dituzten pertsonak.
- Hegaztiak dituzten pertsonak, horiek sakrifikatzeko.
- Hegaztiak sakrifikatzen dituzten pertsonak.
- Hegaztiak lumatu, erraigabetu eta garbitzen dituzten pertsonak.
- Produktua prestatu, ontziratatu eta biltzen duten pertsonak, ondoren banatzeko.
- Hegaztiak dituzten edo izan dituzten lokalak garbitzen eta desinfektatzen dituzten pertsonak, eta hegaztien gorotzekin sortutako simaurra jasotzen duten pertsonak.

Hegaztien haztegiez gain, kontuan hartu behar dira beste leku batzuetan lan egin arren batzuetan zuzenean eraginpean dauden profesionalak.

*Haztegi*etako laborategiak edo beste laborategi batzuk eta albaitaritza-kontsultak:

- Leku hauetan lan egiten duten albaitariak.
- Hegaztietan gaixotasun hau diagnostikatzen lan egiten duten laborategiko langileak, gainera hegaztiokin eta beren gorotzekin zuzeneko kontaktuan daudenak, laginak prestatu, manipulatu eta aztertzeko.
- Horiekin kontaktuan dauden gainerako langileak.
- Hegazti-gripearen birusa manipulatzeko dituzten laborategiko langileak.



*Hegaztiak itxian dituzten gune zoologikoak*

- Kutsatutako animalia hilekin edo biziekin eta horien gorotzekin edo kutsadura-iturri izan daitezkeen hondarrekin kontaktuan dauden pertsonak, animaliak zaintzean, instalazioak garbitzean eta abar.

*Bisoien haztegiak*

- Kutsatutako animalia hilekin edo biziekin eta horien gorotzekin edo kutsadura-iturri izan daitezkeen hondarrekin kontaktuan dauden pertsonak, animaliak zaintzean, instalazioak garbitzean eta abar.

**3.1.2. Zeharka eraginpean dauden profesionalak**

Beren lana betez animaliekin, beren gorotzekin, hondarrekin, erraiekin edo azpiproduktuekin zeharka eta noizean behin kontaktuan egon daitezkeen pertsonak. Kasu horietan, kutsatzeko arrisku handiagoa edo txikiagoa egongo da, hegaztien edo horien hondarren ondoan dauden guneetan eman den denboraren arabera, eta gune horietan jarduerak izan duten errepikapenaren arabera.

Langile horien artean daude:

- Hegaztien ustiategiarekin lotutako jardueraren bat egiten duten garraioko langileak: hegaztien garraioa, pentsua, ohantzea, garbiketako materiala, kaiolak, hornidurak...
- Hegaztien ustiategi baten barruan administrazioko lanak egiten dituzten langileak.
- Laneko arriskuen prebentzioko teknikariak.
- Instalazioak mantentzen dituzten langileak (elektrizitatea, aireztapena, aire girotua, berogailua...).
- Pentsua hornitzen duten langileak.
- Ustiategietako langileek jasotakoan, simaurra erretiratzeko langileak.
- Hegaztiekin, horien gorotzekin edo laginekin kontaktuan egon behar ez duten laborategiko langileak:
  - Administrazioko lanak egiten dituzten langileak.
  - Aparatuak berrikusi, instalazioak mantendu eta antzekoak egiten dituzten langileak.
- Animalia hauek aldi-aldi batu edo garraiatu ditzaketeko langileak, horiek ezabatze edo osasun-arreta emateko, esaterako basozainak, udaltzainak, lorezainak, zabor-biltzaileak eta abar.

## 4. Enpresariaren betebeharrak laneko arriskuen prebentzioan (LAP)

### 4.1. Betebehar orokorrak

Enpresariak, LAPen 31/1995 Legearen 14. artikulua arabera, bere kargura dauden langileek lanean segurtasunaren eta osasunaren gaineko babes eraginkorrerako eskubidea dutela bermatu beharko du.

Horretarako, enpresan jarduera prebentiboa txertatu beharko du, langileek dituzten arriskuak ebaluatuz eta segurtasun eta osasunaren babesa bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz.

Garatu beharreko ekintzen artean daude:



- Prebentzio-plan bat egitea.
- LAPen araudian aurreikusitako antolaketa prebentiboa edukitzea.
- Arrisku saihetsezinak ebaluatzea.
- Arriskuei aurre egiteko prebentzio-neurriak planifikatu eta ezartzea.
- Langileak informatzea, kontsultatzea eta prestatzea.
- Larrialdietan eta arrisku larri eta hur-hurrekoetan jardutea.
- Osasuna zaintzen dela bermatzea.
- Hartutako neurrien jarraipena egitea eta eraginkortasuna ebaluatzea.

Hori guzti hori, prebentzio-ekintzaren printzipioak kontuan hartuta (LAPen Legearen 15. artikulua).

Era berean, kontuan hartu behar da 171/2004 Errege Dekretuak garatutako LAPen Legearen 24. artikuluan enpresarien arteko lankidetzarako betebeharrari buruz xedatutakoa, baldin eta lantoki batean hainbat enpresa badaude (autonomoei ere aplikatzen zaien betebeharra). Lankidetzeta-betebehar horretan sartzen da:

- **Hegaztien ustiategien arriskuei buruzko informazioa ematea kanpoko enpresariei.** Kasu honetan, garraio, garbiketa eta pentsu-banaketako nahiz hegaztien ustiategiko hegaztiekin lotutako zerbitzuetako enpresariak informazioa jaso beharko dute (aski eta idatziz, jarduerak hasi baino lehen), us-tiapenaren titularra den enpresariaren eskutik, lantokiaren beraren arriskuei buruz, kanpoko langileen segurtasuna eta osasuna eraginkortasunez babesteko.
- **Beste enpresari batzuei jarraibideak ematea larrialdi-egoera batean aplikatu beharreko neurriei buruz.** Esate baterako, birusa beste gune batzuetara zabaltzen dela saihesteko ezinbesteko higiene-neurriak, hegazi-influentzaren foku bat badago.

## 4.2. Arrisku biologikoen eraginaren gaineko betebehar espezifikoak

664/1997 Errege Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanean agente biologikoen eraginpean egoteari lotutako arrisku bat edo gehiago identifikatzen badira, ebaluatu egingo dira -saihestu ezin izan ez badira-, langileak haien eraginpean non-nola, zenbateraino eta zenbat denboran egon diren zehaztuz.

Ebaluazioa aldian-aldian egin behar da, baldintzetan aldatuta bat dagoenean, langileek agente biologikoen eraginaren aurrean duten arriskuari eragin diezaiokenean, eta langileren batek laneko agente biologikoen eraginaren ondoriozko infekzio edo gaixotasunen bat duela antzeman denean.

Edonola ere, enpresariak hainbat prebentzio-neurri bermatu beharko ditu agente biologikoen esposizioa saihesteko.





## 5. Prebentzio-neurriak

### 5.1. Kutsadura saihesteko prebentzio-neurri orokorrak

#### 5.1.1. Hegaztien artean kutsadura saihesteko prebentzio-neurriak

- Etxe-hegaztien eta hegazti basatien arteko kontaktuak saihestea. Askak eta janlekuak babestea, hegazti basatiak sar ez daitezen.
- Ustiategi beraren barruan espezie ezberdinak bereiztea.
- Beste animalia batzuekin kontaktuak saihestea, etxe-abereak izan nahiz ez.
- Ahal den neurrian hegaztien mugimendua mugatzea.
- Haztegian sartutako hegazti berriei 3 asteko berrogeialdia jartzea, gainerakoekin batu baino lehen.
- Haztegian aurrez desinfektatu ez diren materialak, elikagaiak, kaiolak eta abar sartzen direla saihestea.
- Beste haztegi batzuetatik datozen pertsonak sartzen direla saihestea.
- Ustiategira sartzen diren ibilgailuak desinfektatzea (bai sarreran, bai irteeran).
- Lekua zorrotz garbitu eta desinfektatzea, hegaztiak berriz sartu baino lehen, haztegia hustuz gero.
- Garbitzeko ez erabiltzea ura soilik, birusak hilabeteetan jarraitzen baitu aktibo bitarteko horretan. Lixiba edo beste desinfektatzailearen bat erabiltzea, betiere kontuan hartuta produktuaren segurtasun-datuen fitxa.
- Ustiategira sartzen diren pertsonen joan-etorria kontrolatzea, bai eta hegaztiak manipulatzeko dituzten pertsonen kopurua ere.
- Haztegi ingurua garbi eta txukun edukitzea, belar txarrak kontrolpean edukita, txori eta karraskarien presentzia saihestuz.
- Beste hegazti batzuek ustiategiko nabeetan edo ondoko eraikinetan habiak egitea saihestea.
- Garbiketa, desinfekzio, arratoi-garbiketa edo intsektu-garbiketarako programak areagotzea, bereziki eta maiztasun handiagoz asketan, janlekuetan, ur-lineetan, pentsu-dukiontzietan, siloetan eta abar.
- Kanpoan dauden ur-biltegiak uretako hegaztiakiko kontaktutik babestea.
- Instalazioen estankotasuna egokia dela bermatzea, hau da, leiho eta ateei ondo funtzionatzeko dutela eta ez dagoela zulorik, esate baterako hegazti-oihalean, beste hegazti edo karraskari batzuei nabeetara sartzeko aukera ematen dienik.



- Oro har, hegaztien ustiategiko higiene-baldintzak hobetzen eta indartzen dituzten prebentzio-neurri guztiak aplikatzea.



### 5.1.2. Pertsonen artean kutsadura saihesteko prebentzio-neurriak

- Ustiategira egiten diren bisitak kontrolatu eta erregistratzea: Instalazioetara egiten diren bisitak murriztea eta beharrezkoak direnak soilik baimentzea.
- Beste ustiategi batzuetako hegaztiekin kontaktuak egotea saihestea.
- Higiene pertsonaleko neurriak areagotzea.
- Langile guztiak sentsibilizatzea eta prestatzea, enpresaren barruko jardueren arabera, higienearen gaineko praktika onen gainean eta, zehazki, arrisku hauen pean zuzenean dauden pertsonak. Segurtasun eta osasunerako jarraibideak helaraztea:
  - Higiene ona edukitzea, batez ere eskuetan:
    - Ez ukitzea txorrotik eskuekin, eta eskuak sarri-sarri garbitzea ura eta xaboi asko erabilia, gutxienez minutu erdiz, xaboiak bere lana egin dezan.
    - Eskularruak jarri eta kendu baino lehen, hegaztiak edo horien hondarrak edo gorotzak ukitu ondoren, hegaztiak lumatu edo zatikatu ondoren... eskuak garbitzea.
  - Paperezko zapiekin lehortzea eta hondarrak botatzeko edukiontzi bat erabiltzea.
  - Sudurra, ahoa eta begiak eskuekin igurztea saihestea.
  - Lantoki barruan ez jatea, edatea edo erretzea.
  - Jan aurretik eskuak garbitzea.



- Hegazti hil edo biziekin kontaktu zuzena saihestea, norbera babesteko ekipoa erabili gabe, bizirik dauden hegazti gaixoen transmisio-arrisku handiagoa baitago hilik daudenekin baino.
  - Hegaztien jariakinekin edo/eta gorotzekin kontaktu zuzena saihestea.
  - Hegaztien produktuak (haragia, arrautza) 70 °C-tik gorako tenperaturan prestatzea, hainbat minutuz.
- Ez erabiltzea presiopeko ur-txorrotarik garbitzeko; birusa sakabanatu dezakete.
  - Lanerako soilik den arropa eta oinetakoak eman eta erabiltzea. Berrerabilgarriak badira, enpresa barruan garbitu behar dira. Erabili ostean botatzen diren arropa eta ekipoa erabiltzea gomendatzen da.
  - Norbera babesteko ekipoa (NBE) eman eta erabiltzea, arrisku biologikoaren aurrean babesteko; maskara egokiak, berrerabilgarriak edo erabilera bakarrekoak, buzo berrerabilgarriak edo erabilera bakarrekoak, txanoak, eskularru berrerabilgarriak edo erabilera bakarrekoak, botak edo oinetakoen estalkiak eta abar.
  - Instalazioetako prebentzio-neurriak: kamera edo tar-teko eskulana instalatzea, aldagelak, arropa-edukiontzia, norbera babesteko ekipotarako edukiontzia.
  - Ibilgailu eta oinetakoetarako higiene-neurriak: errotulubioak eta pedilubioak jartzea, eta/edo ibilgailuen gurpilak eta oinetakoak lixibaz edo desinfektatzailez garbitzea sartu eta irtetean.
  - In situ etengabe egongo den arduradun bat izendatzea (prebentzioko baliabidea), prebentzio-neurri higienikoak eta norbera babestekoak ezar daitzela eska dezan.



### 5.1.3. Urtaroko gripearen urteko txertaketa

Hegazti edo bisoiaren eraginpean sarri egoten diren pertsonen gomendatzen zaie urtaroko gripearen aurkako ohiko txertoa jartzea, giza gripeak eta hegazti-gripeak eragindako aldibereko giza infekzioa gertatzeko aukerak murrizteko, eta, horrela, bi birusen arteko konbinazio genetikoak gertatzeko aukerak murrizteko.

Urtaroko gripearen txertoak ez du nahitaez babesten hegazti-gripearen birusaren infekzioaren aurka, eta, beraz, hegazti edo bestelako animalia infektatuen eraginpean egonik txertoa jasotzen duten langileek norbera babesteko neurri eutsi behar diete beti.

### 5.1.4. Kalteberatasun handieneko pertsonak babestea

Prebentzio-zerbitzuek pertsona kalteberen sentikortasun berezia baloratuko dute, arriskuaren ebaluazioaren eta beren osasunaren zaintzaren arabera, pertsona horiek arrisku handiagoa eragiten duten kontrol-zereginetatik kanpo utzi behar ote diren baloratzeko.

## 5.2. Prebentzio-neurriak kutsadura-susmoa dagoenerako

Animalien artean gaixotasuna dagoela berresten bada eta langileek neurri egokiak hartzen ez badituzte, arriskua «larri eta berehalako» gisa katalogatu liteke, LAPen legeak kasu horretarako ezartzen dituen inplikazioekin.

Horregatik, idatzizko prozedura bat edukitzea komeni da, egoera horren aurrean hartu behar diren neurriak zehaztuko dituen.

### 5.2.1. Kutsadura-susmoa hegaztien artean

- Berehala jakinaraztea albitariari eta dagoion foru-aldundiko abeltzaintza zerbitzuei (agintaritza eskuduna).
- Etxe-abereen sartu-irtenak saihestea.
- Ezinbestekoak diren langileei soilik uztea sartzen, ahalik eta gutxienei, eta ustiatetik sartu-irtenak kontrolatzea.
- Langileen aldagelaren eta kalearen artean babes-hesiak jartzea (hegaztien konfinamendu-gunea).
- Hondakinen edukiontzi bereziak eta desinfekzio-sistemak jartzea.
- Ez ukitzea hegaztirik, ez hilda ez bizirik, babesik gabe. Babes biologikoko eskularruak eta FFP2 edo FFP3 maskarak erabiltzea sartzeko.
- Telefonoz abisatzea (ez bisitatzea) ondoko haztegiak, hegaztien gaineko kontrola areagotu dezaten.
- Eskuak sarritan garbitzea ura eta xaboi ugari erabiliz, eta, ondoren, paperaz lehortzea. Toallarik ez erabiltzea ez partekatzea.
- Albitarien aholkuak betetzea.
- Fokua sumatu den kasurako izendatutako langileak ohartaraztea.





### 5.2.2. Hegazti basati gaixo edo hil bat aurkituz gero

- Hegazti basati hil edo gaixoren bat aurkitzen duen ezein pertsonak ezingo du inola ere aurkitutako hegaztia ukitu edo manipulatu, eta 112 zenbakira deitu beharko du.

### 5.3. Nola jokatu hegazti-gripearean foku bat antzemanaz gero

PHHIren foku bat agertzen denean, berehala aktibatu behar dira infekzioa kontrolatzeko zereginak, eta, horrela, infekzioaren hedapena eta giza osasunerako arriskuak mugatuko dira. Horretarako, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak 2022ko apirilean argitaratutako *Hegaztien gripearean aurkako borrokarako eragiketen eskuliburu praktikoan* ezartzen diren gomendioak jarraitu beharko dira.

Gainera, giza osasuna zaintzeko, animalien osasuneko agintariei hegaztien fokuen berri emandakoan, eraginpean dauden pertsona guztiak identifikatuko dira. Horiei zaintza bikoitza ezarriko zaie, bai infekzioa eragin dezaketen kasuak ahalik eta arinen antzemateko, bai kasu asintomatikoak identifikatzeko aukerak areagotzeko, horrela:

- Sintoma bateragarrien zaintza pasiboa.
- PCR bidezko baheketa.

Fokuaren susmoa jakinarazten den egunetik ustiatégian sakrifizio, garbiketa eta desinfekzio lanak amaitzen direnera arte hegaztien arlo berean dauden langile guztiak eraginpean daudela ulertuko da. Agerraldi horietan eta horietatik eratorritako garbiketa- eta desinfekzio-lanetan aerosol-bolumen handia sor daitezkeenez, ustiatégiarekin zerikusi duten pertsonak eraginpean daudela ulertuko da, eraginpean egon diren bitartean NBEak erabili nahiz ez.

Prebentzio-zerbitzuek pertsona kalteberen sentikortasun berezia baloratuko dute, arriskuaren ebaluazioaren arabera, pertsona horiek arrisku handiagoa eragiten duten kontrol-zereginetatik kanpo utzi behar ote diren baloratzeko.

Adierazi den bezala, eraginpean dauden pertsonak sintoma bateragarrien **zaintza pasiboa** egin beharko dute, ustiatégian fokuen susmoa jakinarazten den egunetik infektatutako animaliekin, horien gorpuekin edo material kutsakorrekin azken kontaktua izan osteko hamar egunera arte. Hau da, gaixotasunaren edozein sintoma agertzen ote den adi zaindu beharko dute (esaterako, sukarra, ondoez orokorra, eztula, eztarriko mina, arnasteko zailtasuna, konjuntibitisa edo urdail-hesteetako sintomak). **RT-PCR** probarako lagin orofarin-

geo bat ere hartuko da, baina ez da beharrezkoa izango neurri berezirik hartzea sintomarik ez dagoen bitartean.

**Sintomak agertzen badira**, Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzailea (Mutua edo Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala) eta enpresako prebentzio-erakundea jakinaren gainean jartzeaz gain, Osakidetzako osasun-kontseiluarekin (900203050) edo osasun-zentroarekin jarri beharko da harremanetan, egoeraren berri emateko. A gripea RT-PCR bidez baztertu beharko da lehen 24 orduetan. Proba egiten den unetik emaitza lortu arte, pertsonak maskara erabiliko du eta ahalik eta kontaktu sozial gutxien izango du.

Emaitza positiboa bada, pertsona hori isolatuta egongo da, bigarren proba egin arte (PCR orofaringeo). Preskribatzen zaion tratamendua jarraituko du, beste pertsona batzuekin kontaktu estua izatea saihestuko du, eta eskuak maiz garbituko ditu ura eta xaboia edo gel hidroalkoholikoa erabilita.



## Bibliografia

Osasun Saila. Hegazti-gripearen protokoloa gizakiengan. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2023 [2024ko apirilaren 9an kontsultatua]. Hemen: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/vigilancia\\_protocolos/eu\\_def/adjuntos/Protocolo-gripe-aviar-eus.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/vigilancia_protocolos/eu_def/adjuntos/Protocolo-gripe-aviar-eus.pdf)

University of Minnesota Extension. Información básica sobre la gripe aviar para propietarios de granjas urbanas y gallineros particulares. [Internet]. [2024ko apirilaren 9an kontsultatua]. Hemen: <https://extension.umn.edu/es/poultry-health/avian-influenza-basics-urban-and-backyard-poultry-owners#:~:text=En%20los%20pollos%2C%20los%20signos,la%20cabeza%20y%20las%20patas>

OSALAN. Laneko arriskuen prebentzioa hegazti-gripearen aurrean. Eskuliburu informatiboa eta gidaliburu praktikoa (2008). [2024ko apirilaren 9an kontsultatua]. Hemen: [https://www.osalan.euskadi.eus/contenidos/libro/higiene\\_200810/eu\\_200810/adjuntos/higiene\\_200810\\_eus.pdf](https://www.osalan.euskadi.eus/contenidos/libro/higiene_200810/eu_200810/adjuntos/higiene_200810_eus.pdf)

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Manual práctico de operaciones en la lucha contra la Influenza aviar (2022ko apirila). [2024ko apirilaren 9an kontsultatua]. Hemen: [https://www.mapa.gob.es/es/ganaderia/temas/sanidad-animal-higiene-ganadera/manualiaabril2022\\_tcm30-437988.pdf](https://www.mapa.gob.es/es/ganaderia/temas/sanidad-animal-higiene-ganadera/manualiaabril2022_tcm30-437988.pdf)

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Plan de confinamiento y de bioseguridad de las aves de corral y otras aves cautivas (2017ko otsaila). [2024ko apirilaren 9an kontsultatua]. Hemen: [https://www.mapa.gob.es/en/ganaderia/temas/sanidad-animal-higiene-ganadera/planconfinamientoybsgaves\\_feb\\_2017\\_tcm38-377299.pdf](https://www.mapa.gob.es/en/ganaderia/temas/sanidad-animal-higiene-ganadera/planconfinamientoybsgaves_feb_2017_tcm38-377299.pdf)